

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

**Iruña Okako udalbatzaren 2023ko martxoaren 8ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita kirol elkarte, talde eta klubei dirulaguntzak emateko, 2023an jarduerak egin ditzaten**

BDNS (Identif.): 681683

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681683>.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai, hemen: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

#### Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke kirol elkarte, talde eta klub publiko zein pribatuak, irabazteko xederik gabe eratuak, sozietatearen egoitza Iruña Okan dutenak edo jarduera udalerrri horretan egiten dutenak, legez eratuak edo erregistratuak badaude.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio batzarrak, ikastetxeak, udal institutuak eta horien barneko edo horiei atxikitako talde eta elkarteak, kultura edo gizarte xederik ez duten elkarte eta erakundeak eta ikasleen gurasoen elkarteak (IGE).

Hauek ere izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Iruña Okako udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko entitateak, nahiz eta egoitza bertan ez eduki. Erakunde horiei eskatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzea.

Iruña Okako Udalak eskainitako proiekturen baten antzekoa aurkeztzen badu talde edo elkarte batek, udala talde edo elkarte horrekin jarriko da harremanetan, aurkeztutako programa guztien bateragarritasuna bermatzeko.

Salbuespenak. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

a) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

b) Izaeragatik edo xedeagatik Kirol Batzordeari esleitutako jardun eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

c) Edozein motatako zerga betebeharrak (tokikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne) egunean ez dituzten erakunde edo elkarteek aurkeztutako eskabideak.

d) Ez dira kontuan hartuko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen justifikazio memoria entregatu gabe duen jarduera edo programei buruzko eskaerak.

e) Ez dira kontuan hartuko beren jarduera publikoetan indarreko legeria betetzen ez duten elkarte, erakunde eta pertsonen proposamenak (jaiotza tokiagatik, arrazagatik, sexuagatik edo erlijioagatik diskriminazioa).

**Bigarrena. Xedea**

Aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jarduerak eragindako gastuen finantzaketan laguntzea, baldin eta jarduerok kirol elkarte, talde eta klubek sustatzen badituzte Iruña Okan edo 2023. urtean edo 22/23 denboraldian udalerrarentzat interesgarritzat jo ahal badira.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Iruña Okako udalbatzak 2023ko martxoaren 8ko erabakiaren bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Kontsultatu oinarri arauen zazpigarren klausula.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epealdia**

Eskabideak eta laugarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko 2023ko apirilaren 27ra arteko epea egongo da.

Iruña Oka, 2023ko martxoaren 14a

*Alkate-lehendakaria*

*MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ*